

# Amaiaren nobioa?

## **A. IKUSI AURRETIK**

Erantzun galderei:

1. Nola ikasten / irakurtzen duzu zuk? Paperean ala pantailan?

- Paperean irakurtzen dut beti.
- Pantailan: tabletan, ordenagailuan edo e-book batean.

2. Zergatik?

- Papera ukitu, eskuetan hartu behar dut.
- Erosoa da pantailan ikustea.
- Ez da papera gastatzen, eta tinta ere ez.

## **B. IKUSI BITARTEAN**

1. Ikusi bideoaren lehen zatia eta esan EGIA ala GEZURRA diren:

- Amaiak Josuri eskerrak ematen dizkio apunteak utzi dizkiolako.

EGIA    GEZURRA

- Normalean, Amaiak uzten dizkio apunteak Josuri.

EGIA    GEZURRA

- Amaia astean bitan ez da klasera joaten.

EGIA    GEZURRA

- Amaiori apunteak fotokopiatzea gustatzen zaio, paperetik ikastea.

EGIA    GEZURRA

- Josuk kopiak egiten ditu, papera gustatzen zaio.

EGIA    GEZURRA

2. Ikusi bideoaren bigarren zatia eta aukeratu nor esan duen esaldi bakoitza, josuk ala Amaiak.

- Ez dizut ezer esango!  
AMAIK JOSUK
- Ez zaituz astuna izan!  
AMAIK JOSUK
- Mutil-laguna daukazu  
AMAIK JOSUK
- Imaginazio handia daukazu  
AMAIK JOSUK
- Titiko umea ematen duzu  
AMAIK JOSUK
- Zergatik egingo duzu kale fakultatean?  
AMAIK JOSUK

3. Bideoaren arabera, zein da aukera zuzena?

**A.** Amaiak mutil-laguna dauka. Bi metroko mutil mardula da, aizkolaria.

**B.** Amaiak ez dauka mutil-lagunik

**C. IKUSI ONDOREN**

1. Osatu esaldi hauek eta erabaki pertsona-izenei Ø, -k ala -ek bukaera jarri behar zaien:

1. Mikel... ile beltzarana dauka, baina bere arreba Miren... ilehoria da.
2. Josune... oso txikia da. Jaione..., ordea, oso emakume altua da.
3. Xabi... oso umore txarra dauka beti astelehen goizean.
4. Itziar... soineko asko dauzka, dantzaria da eta.
5. Pili... oso motor polita dauka, urdin-urdina.
6. Yolanda... bi maskota ditu: katu bat eta txakur bat.
7. Kristina... ezkondu dago eta bere senarra bizkaitarra da.

## Erantzunak

### B.

1. Egia, Egia,,, Gezurra, Gezurra, Egia
2. Amaiak, Amaiak, Josuk, Amaiak, Amaiak, Josuk
3. B da erantzun zuzena.

### C.

1. Mikelek/MirenØ
2. JosuneØ/JaioneØ
3. Xabik
4. Itziarrek
5. Pilik
6. Yolandak
7. KristinaØ

# Transkripzioa

**AMAIA.-** Josu, eskertzen dizut apunteak uztea.

**JOSU.-** Horixe bakarrik behar genuen! Zuk beti uzten dizkidazu eta.

**AMAIA.-** Astean behin ez naiz klasera etortzen eta zure apunteei esker ez naiz atzean geratuko. Barkatu endredoa. Baina ni ez naiz eskola zaharrekoa, nik eskaneatuta nahi ditut zure apunteak.

**JOSU.-** Nik ez! Nik papera, ukitu, eskuetan hartu behar dut. Horregatik egiten ditut kopiak. Paperetik ikasi dut beti eta ez naiz aldatuko.

**AMAIA.-** Ba niretzat oso eroso da apunteak eskaneatu eta pantailan kusteak.

**JOSU.-** Beti ordenagailuaren aurrean, itsutu egingo zara!

**AMAIA.-** Bai zera! Begira, eskaneatzea eta kopiatzea oso antzekoak dira: papera hemen jarri, hemen sakatu eta zuzenean zure apunteak nire ordenagailura joango dira.

**JOSU.-** Oso oso interesgarria, bai!

**AMAIA.-** Eta gainera, ez da papera gastatzen, eta tinta ere ez.

**JOSU.-** Primeran, bai, primeran!

## ETENA

**JOSU.-** baina Amaia, astean behin zergatik egiten duzu kale fakultatean? Kontatu, kontatu...

**AMAIA.-** Ez dago sekretu berezirik.

**JOSU.-** Ez zera! Mutil-laguna daukazu!

**AMAIA.-** Nik?

**JOSU.-** Bai, seguru!

**AMAIA.-** Ez, ez, Josu, ez...

**JOSU.-** Bai, seguru, kontatu!

**AMAIA.-** Ezetz, ez zaitez astuna izan!

**JOSU.-** Bai, eta goizean bakarrik daukazu ikusteko aukera, ezta?

**AMAIA.-** Aizu, zuk imajinazio handia daukazu, e!

**JOSU.-** Asmatu dut, ezta?

**AMAIA.-** Ba bai! Bi metroko mutiko mardula da, aizkolaria, eta kontuz: jeloskor jartzen bada, jipoi ederra emango dizu!

**JOSU.-** Amaia, kontatu!

**AMAIA.-** Ai, tira, Josu! Titiko umea ematen duzu!

**JOSU.-** Kontatu!

**AMAIA.-** Ai, Josu! Txorakeria bat da, eta kontatzeko asmotan nintzen, baina orain ez dizut ezer esango!!

**JOSU.-** Amaiak nobioa dauka, Amaiak nobioa dauka...!

**AMAIA.-** Xxxxxxx, Josu!

**JOSU.-** Amaiak nobioa dauka...